

# Abarrak

UNAI BREA

## Dantza tradizional garaikidea, edo alderantziz

*Ari du.* Oinkari dantza taldea. DVDa. 2011.  
Iraupena: 77 minutu.

1970EKO HAMARKADAKO euskal dantzaren ezta emandako produktuetako bat da Billabonako Oinkari taldea. Azken hamar urteetan, Edu Muruamendiaren koreografoaren eskutik, bestelako bideak urratu dituzte, garaikidetasunarekin uztartutako ikuspuntu bat eskaintzearen. Hala diote beraien, *Ari du* ikuskizuna jasotzen duen DVDarekin batera argitaratutako liburuxkan.

Hainbat modutan deskribatu liteke *Ari du*. Kalitate handiko euskal dantza da, bate-tik. Oinkari ez da Euskal Herrian dauden talde on horietako bat bakarrik. Oinkari elitea da. DVDan ikus daitezkeen hamasei dantzetan zehar, dantzariak agertzen duten prestakuntza tekniko eta fisikoa oso gutxi-eren esku dago Euskal Herrian. Ordu luze-tako lana igartzen da, dohainak ere bai.



Bigarrenik, dantza tradizionalari “beste zerbait” eransteko lan eskeraren beste kapitulu bat da *Ari du*. Betiko dantzak eta Zuberoako dantzetan oinarrituak –Gipuzkoako eta Zuberoako dantzetan oinarrituak– uztartzen ditu Oinkari, baina ikuskizunaren alderik tradizionalenari ere ekarpenak egiten dizkio, eta denak interesgarriak. Ezohiko musika tresnak, jantziak... Lorpen handiena da horren guztiaren batura naturaltasun osoz ikuslearen begi paretik igarotzen den segida izatea. Belarriak ere badu zer gozatua: Juan Kruz Igerabidek idatzi eta irakurritako poemak, euria dutela ardatz, dantzarien jauzi eta urratsen osagarri bikaina dira. Euskal Herrikan kanpoko ekarpena *ball de bastons* da, Kataluniako eta Aragoiko makil-dantza, gutxienez XII. mendetik ezagun dena. XXI.ean gaude-nez, ikuskizunaz gain bestelako edukiak aurkituko dituzue DVDan, *making off*-a barne. On egin. ■



### EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPARRA  
HEMEN ERABILI

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Balmien zkoa. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)